

HILOBIAK

Iñiguezarren hilobia

Santa Anaren kaperako obrarik nabarmenena hegoaldeko hormako hilobi hau da, Iñiguezarren familiako kide batena. Hormari atxikita dago, harrizko hilobi-urna gisa, baina ez zuen hori izan jatorrizko kokalekua. Hain zuzen, kaperaren erdian egon zen, 1759an Legardako markes eta Ambiteko bizkonde José Manuel de Esquibel y Ribas jaunak hilobia Santiagoko kaperarekin muga egiten duen hormara aldatzea eskatu zuen arte. Eskaera onartua izan zen, besteak beste horma horretan beste hilobirik ez zegoelako.

Hasieran, sei lehoiren gainean bermatutako hilobi-ohe bat izan zen. Sarkofagoak Iñiguezarren bi armarrari ditu, zerrenda bertikalen bidez bereziak. Hildakoa ohean etzanda datza, bururako kuxina eta hilobi-oherako izara dituela. Zaldun gisa dago irudikatuta, tunika luzez eta lokarriz lotutako mantu batez jantzia, eskularruak eskuan. Aurpegi hezurtsua du, bekoki zuzena, begi handi itxiak, bizar luzea eta ile kizkurra. Hildakoaren ondoan hiru aingerutxo daude, bi burualdean eta bat hilobi-ohearen erdian, intsentsu-ontzi batekin. Vasterratarren hilobietako eredu gaztelauari jarraitzen dio, baina hau naturalistagoa da, forma plastikoagoak ditu, ez hain geometrikoak, eta, beraz, kronologikoki, XIV. mendean kokatu behar da.



Egilea: Anonimoa

Data: XIV. mendea

Teknika: Harri landua

Neurriak: 487 x 313 x 180 cm inguru

Kokapena: Santa Maria Katedrala (Vitoria-Gasteiz)



Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

AZCÁRATE RISTORI, José M.^a de. "Catedral de Santa María (catedral Vieja)". En: PORTILLA VITORIA, Micaela J. et al. *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: Ciudad de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, tomo III, 1968, pp. 97-98.

LAHOZ, Lucía M.^a. "sepulcros góticos de la catedral de Vitoria". *Cuadernos de Sección, Artes plásticas y documentales*, 11, 1993, pp. 73-91.

LAHOZ GUTIÉRREZ, Lucía M.^a. *Escultura funeraria gótica en Álava*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, 1996.

LAHOZ, Lucía. "Gótico". En: GONZÁLEZ DE SAN ROMÁN, Miguel (Dir.). *Vitoria-Gasteiz en el Arte*, vol. I, Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 1997. p. 232-233.



Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba  álava
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:



katedrala
SANTA MARIA



arte.catedralvitoria.eus

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak
Tel. 945 255135
www.catedralvitoria.eus

Bisitarien zentroa



Santa María kantoia 3
01001 Vitoria-Gasteiz